

laia

hemezortzigarren alea ~ 2025



16

Lagungarri:
Etxebizitza eta bizitza
kolektibotik pentsatzea

24

ECOS:
Bartzelonako
Polo Kooperatibo bat

30

**Tangente Grupo
Cooperativo:**
Polo kooperatibo bat
Madrilen



Staff

Argitaratzailea:

BDS Eraldaketa Fabrika, Ekonomia
Soziala eta Tokiko Garapena
Sustatzeko Elkartea

Koordinatzailea:

Dornaku Lanz

Diseinua eta maketazioa:

Susana Fernández (su-estudio.com)

Inprenta:

Antza Komunikazio Grafikoa
1.000 ale

Lege gordailua:

LG D 00583-2020

ISSN:

2660-4523

Aldizkari hau paper birziklatuan
inprimatu da.

 BDS Koop Eraldaketa Fabrika

 @Bds_Koop

info@bdskoop.eus

www.bdskoop.eus

BDS | KOOP
ERALDAKETA FABRIKA



EDITORIALA

Antolaketa eta burujabetza: bizitza erdigunean

Laia 18 honetan bildu ditugun esperientziek galdera bera partekatzen dute: nola antolatu bizitza merkatuaren logikatik harago, komunitatearen eta burujabetzaren ikuspegitik? Baionatik Bartzelonara, Madrildik Murgiara eta gure landa-eremuetara, etxebizitzatik zaintzara eta nekazaritzatik interkooperaziora, ez dugu teoria hutsa aurkituko, baizik eta martxan dauden egitura zehatzak.

Baiona aldean **ALDA**-k erakutsi digu auzoa ez dela soilik bizitzeko espazioa; antolatze eskola ere bada. Etxebizitzaren krisiari aurre egiteko, atez ateko lana, garaipen txikiak eta komunitatearen ahalduntzea uztartu ditu. **Auzogintza estrategia da:** boterea birbanatzeko eta herritarren antolaketa iraunkorra eraikitze tresna

Nekazal test guneek, berriz, nekazaritzan hasteko trantsizio-espazio segurua eskaintzen dute. Lurra, azpiegiturak, estaldura juridikoa eta akonpainamendua uztartuz, proiektu bat probatzeko aukera ematen dute arrisku ekonomikoak murriztuta. Ez dira soilik formakuntza-programak; elikadura-sistema bidezkoago baterako azpiegitura izan daitezke. Egitura hauen erakusle ditugu Ipar Euskal Herriko **Trebatu**, Bizkaiaiko **Haztegia**, Arabako **Aleko**, Nafarroako **Zunbeltz** edo Gipuzkoako **Trebatu**, haietako asko **RETA sarearen** parte direnak. Trantsizio ekosozialak lurra behar du, baina baita lurra antolatze egiturak ere.

Lagungarri-k etxebizitza eta zahartzea beste modu batean pentsatzeko aukera ireki du. Erabilera-lagapeneko kooperatiba gisa, espekulaziotik kanpo eta erabaki asanblearioekin, komunitatean zahartzea proposatzen du. **Cohousingak** bakardadearen eta paternalismoaren orde zahalduntzea eta elkarren zaintza jartzen ditu erdigunean.

Zaintzaren eremuan, **zaintza kooperatiba integralaren proposamenak** lan duina, parte-hartze demokratikoa eta komunitatean errotutako zerbitzua uztartzen ditu. Zaintza ez da merkantzia hutsa, bizitza sostengatzeko jarduera baizik. Gure inguruan badaude bide hori jorratzen duten esperientziak, hala nola Hernaniko Maitelan eta Cuidando-T Lizarran, lan baldintzak eta bizi baldintzak hobetzeko tresna kooperatiboak eraikiz. Galdera nagusia da: zaintza nola antolatu nahi dugu, merkatuaren bidez ala komunitatearen bidez?

Bartzelonan, **ECOS** taldeak interkooperazioa egitura iraunkor bihurtu du: espazio fisiko partekatu, funts kolektiboak eta ordezkari politikoak. Helburua merkatu soziala handitzea eta kapitalismoaz haragoko gizarte baterantz aurrera egitea da. Espazio propioen jabetza estrategikoa dela azpimarratzen dute.

Madrilen, **Tangente Grupo Cooperativo-k bigarren mailako kooperatiba gisa funtzionatzen du**, lana sortu eta banatu eta bazkideen arteko interkooperazioa egituratuz. Testuinguru politiko konplexuan ere, polo kooperatiboek bideragarritasun ekonomiko eta eragin soziala uztartu ditzaketela erakusten dute.

Laia 18 honetan agertzen diren esperientziak ez dira proiektu isolatuak. Azpiegitura politikoak dira: auzoa botere bihurtzea, lurra trantsizio-espazio egitea, etxebizitza espekulaziotik askatzea, zaintza duintzea eta kooperatibak ekosistema bihurtzea. Trantsizio ekosoziala ez da diskurtso hutsa; egiturak, denbora eta antolaketa behar ditu.

Alternatibak badira. Galdera da ea gai garen horiek konektatzeko, sendotzeko eta gure lurraldean.

AURKIBIDEA

05

Baiona ttipian,
auzogintza handia

20

Zaintza kooperatiba integrala:
krisi sistemiko bati erantzun
kolektiboa

10

Nekazal test guneak:
nekazaritzan hasteko trantsizio-espazio
segurua

24

ECOS:
Bartzelonako
Polo Kooperatibo bat

16

Lagungarri: etxebizitza eta bizitza
kolektibotik pentsatzea

30

Tangente Grupo Cooperativo:
polo kooperatibo bat Madrilen

BAIONA TTIPIAN, AUZOGINTZA HANDIA

TESTUA: HIRITIK AT KOOPERATIBA
ARGAZKIAK: ALDA MUGIMENDUA, PRENTSA





ALDA mugimendua 2015-2016 urteen artean sortu zen Ipar Euskal Herrian. Baionan abiapuntu hartuta, etxebizitzaren krisi gero eta larriagoari eta klase popularrek bizi zuten bazterketari erantzuteko sortu zuten ekimena. Izan ere, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak larritzen hasiak ziren; besteak beste espekulazio basatiari eta erakunde publikoen ezintasunarengatik. Gainera, estutasun sozioekonomikoaren humusean, munstroa nabarmen indartu zen: ultra-eskuinaren mehatxua nabaritu zuten Baionan.

Aipatu testuingurua gertuko zaigu, baita garaikidea ere. Edonola ere, ALDA aitzindaria izan da; izan ere, duela hamarkada bat sortu zituen datorrenari aurre egiteko tresnak: etxebizitzaren eskubidea defendatzeko eta herritarren antolaketa eta ahalduzkoa sustatzeko herri-egiturak, hain zuzen. Antzaenez, ordutik hona, ALDA indartu egin da; eta huntza oparora bailitzan, Baionako auzuneetan zabaldu da, astiro baina sendo.

Baiona aldetik datozen zurrumurruek liluraturik, Hiritik Ateko hiru kide Bidasoa eta Urumeako ertzetatik Aturririko erriberara abiatu gara. Laster batean ailegatu gara BAM metropolira (Baiona-Angelu-Miarritzek osatzen duten hirigune handia), eta errepide labirintoa gairiduta, berehala topatu ditugu Baiona Ttipiko ateak. “Gertu izanda ere, zenbat kostatzen zaigun ekialdera gerturatzeari”, aipatu diogu elkarrizketaren aparkalekutik ateratzen. Cordeliers karrikan aurrera, hegoaldean ohiko leloa errepikatzen dugun guk ere: “eta hain da ederra, mugitua eta interesagarria ezezagun zaigu Euskal Herri hau...gehiagotan etorri behar dugu!”.

ALDAren egoitzak gertu behar du, eta haren arrastoaren atzetik garelako komentatu dugun nola “iparraldeaz” proiektatzen zaigun nekazal-iruditegiak zenbat duen euskal erromantizismotik, eta turistifikaziotik. Badira soroak, larreak eta baserriak noski; bai borroka anti-arrazista, euskaltzalea, sozio-ekonomikoa, internazionalista edota ekologista ere bai: Cordeliers karrika estaltzen duen paskin geruzak horrela ematen digu aditzera. BAM hiria da inola ere, urbanoak dituen bertute eta gatazka ardatzak barne; eta hiritarrek nola, BAM ere errepublika ttipiz osatua dago: auzoak, alegia.

Hain zuzen, bi hari-mutur horiei tira egiteko asmoz etorri gara bi kideak: etxebizitzaren borroka eta auzogintza. Izan ere, kooperatibistak izateaz gain,

hiru bisitariok Auzo Elkarrekin militatzen dugu, eta Euskal Herriko auzo mugimenduen oihartzunak beti izan du leku berezia gure ibilbidean. “20, Cordeliers! hor da!”, ALDAren lokalaren kanpo-itxurak, aldarriz beteak, zuzen garelako berresten digu. Sartu gara barrura, sei edo zortzi lagun ari dira lanean, kartel eta artxiboz beteriko inguru nabarrea. “Lazkaoko beneditarrek bildu duten parekoa da hau”, pentsatu dugun, “gure herriaren historiaren gordailuetako bat”.

ALDAko kide batek egin digu harrera; eta ondoren, barrualdeko gela ttipira eramanez gaitu, han egingo dugun elkarrizketa, nonbait. Euskara eta frantsesa nahastuz hasi dugun solasaldia, baita lerroburu argi batekin ere: auzoetan antolatzea ezinbestekoa da herritarren eskubideak bermatzea nahi badugu.

ALDAren sorrera: herri xehearren beharretik

“Egiten genituen ekintza politikoei ez ginen klase popularretara heltzen”, aitortu digu gure solaskideak. “Diskurtsoa eta mobilizazioa bai, baina ez genuen lortzen jendearen eguneroko arazoei erantzutea, ezintasunetik etsipena eta frustrazioa sortu daitezke, eta dakigunez, horiek dira ultra-eskuinak maite dituen baldintzak”. Horrela, 2019aren bueltan, Bizi mugimenduko militanteek herri xehearren beharrei erantzuteko egitura berri bat sortzea erabaki zuten. Aldaketa, haien ustez, ez da diskurtso handietatik etortzen, jendearen behar zehatzen gainean antolatzenetik baizik.

Manu Robles-Arangiz fundazioaren (MRA) laguntzarekin egituratu zen ALDA, eta gaur egun mila bazkide baino gehiago ditu Ipar Euskal Herri osoan. Finantziarioa bazkideetatik eta MRA fundazioen ekarpenetatik dator, baina mugimenduen benetako indarra beste bat da: ALDAk 600 boluntario ditu aktibo, horietatik %70 emakumeak. ALDA auzoetan errotutako mugimendua da horrenbestez, eta autonomia politikoa zein ekonomikoa eraikitzen ari da: nahieran borrokatzeko, inori ezer zor gabe.

ALDAren helburua herritarren artean antolaketa-gaitasuna indartzea da, eskubideen defentsa eta ahalduzkoa ardatz hartuta. “Inpotentziatik ateratzeko bidea elkartasuna da”, dio militanteak.

Horretarako, Saul Alinsky antolatzaile estatubatuarren XX. mendearen erdialdean formulatu zuen community organizing ereduak dute inspirazio-iturri. Haren intuizio nagusietako bat hau da: izan zen: aldaketa soziala ez da diskurtso handietatik abiatuko, jendearen eguneroko arazo zehatzetatik baizik. Komunitate batek boterea eraiki nahi badu, lehenik eta behin antolatu egin behar du; eta antolaketa hori gatazka errealean, helburu lorgarrietan eta garaipen txikitzen oinarritu behar da. Alinskyrentzat, postontzi bat konpontzea edo parkeko argiteria berritzea ez zen xede hutsa: antolatzeko aitzakia da, komunitateak bere indarra deskubritu dezan. Garaipen txiki bakoitzak konfiantza kolektiboa handitzen du, eta horrek borroka handiagoi heltzeko gaitasuna sortzen du.

ALDAren ibilbidea begiratuta, erraz antzematen da logika hori. Atez ateko lanak, helburu zehatz eta eskuragarrien hautaketak, boluntarioen sarea josteko estrategiak edota erakundeekin presio eta negoziazioa uztartzeko gaitasunak antolaketa pragmatiko eta metodiko bat erakusten dute. Alinskyk zioen antolatzailearen eginkizuna ez dela herriaren ordez hitz egitea, baizik eta herriak bere kabuz jarduteko gaitasuna eskuratzea. Zentzu horretan, ALDAk ez du soilik arazo puntualei erantzuten; boterea birbanatzeko eskola bat eraikitzen du auzoetan, inpotentziatik antolaketara igarotzeko bide kolektiboa irekiz.

Bide horretatik, urte gutxian, ehunka boluntario antolatu ditu ALDAk eta finantza estrategia eraginkorrez, 10 langile liberatzea lortu du herri-sindikatuak. Egitura horrek ekimenak duen babesa adierazten du, baita bertan batu den esperientzia militante, eta antolaketarako trebetasuna ere.

Auzoetako esperientziak: antolaketa kolektiboaren indarra

Gaur egun, ALDAk sei auzo-kolektibo aktibo ditu BAM metropolian, gehienak Baionan. Bestalde, Baionan, hamar talde berri sortzeko lanetan dira. Lehen kolektiboak “atez ate” metodoz sortu zituzten: bizilagunaren atarira hurbildu, aldaba jo, eta hizketaldiaz sarea josi. Bejondeiela. Gaur egun, ordea, auzotarrak dira ALDARA hurbiltzen direnak, baleko tresna delakoan, bertan antolatzeko asmoz. Borondateak atez ate irabazi ondoren, auzunea konfiantza sortu du ALDAk.

Baina... zer egiten dute ALDA taldeek zehazki? Kolektiboek arazo txikietatik hasten dute lana: postontzi baten falta, parke baten egoera, zabor lekuaren nabasa... borroka ttipi asko izan daitezke. Edonola ere, lehen fase horretan, funtsezko ezaugarri bat bete behar dute: helburu lorgarriak izan behar dira, komunitatea antolatu eta garaipenean jendea ahaldu ahal izateko. Bistan denez, xedea ez da postontzia konpontzea, bakarrik, antolaketaz auzoa aldaketa sozialerako espazio bihurtzea baizik. “Auzoa ez da bizitzeko lekua soilik; herritarren antolakuntzarako eskola bat izan daiteke”, azaldu digu kideak, “baina horretarako estrategiak behar dira, ekintza zehatzak eta antolaketa rako baliabideak”. ALDAko lagunak esan ez badu ere, gaude hori dela herri-sindikatuak eskaintzen duena, eta haren arrakastaren arrazoia.

Komunitategintza politikoa lehenesten du ALDAk, ekimen ikusgarri edo isolatu gaitatik; horrela, metodo baketsu eta popularrak erabiltzen ditu, non edozein pertsonak har dezakeen parte: asanbladak, formazioak, erakundeei eskaerak eta horien jarraipena, ekintza sinbolikoak, komunitate-topaguneak antolatu, etab.

Garaipen txikiek antolaketa grina indartzen dute, eta borroka handiagoetarako gaitasunak areagotzen dituzte. Irabazi edo galdu, auzoetako kolektiboak hilabete behin biltzen dira, ALDAko liberatuen dinamizazioak lagundurik. Horri esker, auzoetako



antolakuntza ez da une puntual bat, borroka jakin bat; ez: elkarbizitza, borroka, topagunea, asanblada, garaipena, porrota eta bizitza bera lotzen dituen prozesua da. Horixe da ALDAren ekarpenik handiena: bizi-prekarietateak arrakalatu ohi dituen komunitate-antolaketa prozesuei eusteko egitura izatea, kanpotik sortua, baina auzoak beretzeko aukera duena.

Etxebizitzaren eskubidea: borroka estrategikoa

Ez al zen ALDA etxebizitza eskubidea borrokatzeko tresna? Bada, ez eta bai.

Ez, ALDA aipatu ditugun antolaketa komunitarioak laguntzeko sortu delako, auzo auzo herrigintza egiteko, dena irabazteko. Bestalde, bai: etxebizitzaren auziaren larritasuna dela-eta, ALDAk



erabaki duelako horri heltzea, behin behineko zein epe luzerako xedeak lortzeko bide delakoan etxebizitza duinaren aldeko borrokan engaiatzea. Hegoaldearekin alderatuta, Ipar Euskal Herrian bada probestu daitekeen arrakala bat: etxebizitza sozialen %90 HLM erakundeen esku dago. Zergatik da hori garrantzitsua? Bada, aukera ematen diolako herri-ekimenari etxebizitza-politikak zuzentzen dituzten erakunde horien gobernu-organoetan izateko. Hori egin du ALDAk eta hautagaitza arrakatsuz, herritarren ord lortu dute hainbat HLM-ren kasuetan. Ainize Butron mugimendua lehendakaria da, eta argi eta garbi adierazi zuen: “eskubide bat defendatzen dugu, ez pribilegio bat”.

Erakundeetatik ez ezik, ALDAk herrigintza molde klasikoagoak baliatzen ditu. Tartean dira legez-

kanpoko etxebizitza turistikoaren okupazio ekintzak (adibidez Hendaian) baita masa-mobilizazioak ere: 2021eko azaroan 8.000 lagunek egin zuten bat “espekulazioaren kontra eta etxebizitza duinaren alde” eginiko manifestaldiarekin.

Beraz, ALDAk, herrigintza tik sortua, herrigintza eta borroka instituzionala konbinatzen ditu; eragin espazio orotan ekiteko konpromiso, eta inoiz, lurralde erroak ahanzi gabe.

Auzogintza erakutsia

ALDAk auzogintza erakutsi digu, baina mugak ere bai.

Alde batetik argi ikusi dugu honako hau: auzogintza ez da arazo puntualak konpontzeko tresna soil, erronka sozio-ekonomiko potoloei heltzeko lurralde-oina da, funtsezkoa. “Zer” ez ezik “nola” bat ere bada auzogintza: eskubideak eta bizitza ona demokrazia zuzen eta komunitariotik borrokatzeko aukera da, auzoak duen gertutasunaren bertuteari esker. Hiri handian ez bezala, auzoan ez dago hiritarrik, bizilagunak baizik. Espazio Publiko arrotza aldir, kale bilakatzen da auzoan, bizi-komunitateak zentzuz bustiriko espazioa baita, ezaguna eta maitatua. Gertutasun eta elkar-ezagutza horrez baliatuz, borroka komunitate inklusiboak josi daitezkeela erakutsi digu ALDAk.

Bestalde, nabaria da ekintzak egiten duela auzo; eta komunitatearen jardunak bilakatzen duela bizileku arrunta auzo. Edo bestela esanda: “gintza”rik gabe ez dago auzorik. Bide horretatik ALDAk irakasgai boteretsua laga digu: auzoak bidelaguntzeko antolaketa egitura esternoak gako izan daitezke. Ezin baitugu auzo idealizatu, ez baitago toka tu zaigun mundutik aparte: prekaritatea, biolentzia, soziofobia, norberekeria edota nihilismoak erroak ditu auzoan, elkartasunak bezain beste.

Horrenbestez, ALDA bezalako tresna herrikoiak, politiza tuak, auzoaren anibalentzia termino eraldatzaileetan askatzeko balio du: elkartasun bulkadak indartzeko, norberekeria ren kontra. ALDA erakutsi digu nola egiten den hori: atez ate lan eginez, borroka zehatzak proposatuz, asanbladak dinamizatuz, erakunde eta komunitatearen arteko zubi-lanak eginez, ... eta batez ere: antolaketa, antolaketa eta antolaketa. Horrek esan nahi duen guztiarekin: estrategia argia, finantza autonomia eta liberazioak. Dударik gabe, ALDAren gaitasun horiek ez dira egun bakarreko uzta; alta fruitu bera jaso nahi duenak lurra nondik jorratu ikasteko adibidea topatuko du herri-sindikatuan.

Hiritik Ateko hirukoteak Errobi ibaia ren konpainian hartu dugu azken kafetxo. Trago artean aletu ditugu ALDAko lagunak oparituriko esperientziak, eta hautatu ditugu zenbait adibide. Baiona Tipiari agur esan baino lehen, elkarri begira tu diogu, eta konbentzimendu berrituz aitortu: “gehiagotan etorri behar dugu Baionara!”.

NEKAZAL TEST GUNEAK:

NEKAZARITZAN HASTEKO TRANTSIZIO-ESPAZIO SEGURUA

IKERLARIA: GARAZI ALKORTA BETI
ARTIKULUA: DORNAKU LANZ SOLBES

Nekazaritzan hasi nahi duten pertsona askok antzeko oztopoekin egiten dute topo: lurra eskuratzea zaila da, hasierako inbertsioak handiak dira, ezagutza fiskal eta administratiboak konplexuak dira, eta merkaturatzeko bideak ez daude bermatuta. Horri gehitu behar zaio lan baldintzen prekarizazioa eta sektorearen bakardade estrukturala. Testuinguru horretan, nekazal test guneak tresna berritzaile gisa agertzen dira: nekazaritzan hasteko aukera ematen dute, baina arrisku pertsonal eta ekonomikoak murriztuta.



Zer da nekazal test gune bat?

Nekazal test gunea denbora mugatuko espazio bat da, non pertsona edo talde batek bere nekazaritza-proiektua baldintza errealetan probatu dezakeen, baina estaldura juridiko, ekonomiko eta tekniko batekin. Ez da soilik formakuntza-programa bat, eta ez da zuzenean ustiategi propio baten sorrera ere. Bien arteko trantsizio-espazio bat da.

Test guneek, oro har, hiru euskarri nagusi eskaintzen dituzte:

Euskarri fisikoa: lurra eta oinarritzko azpiegiturak (ureztapena, biltegia, la nerako ekipamendua). Espazioa aldi baterakoa izan ohi da, eta tamaina ertain edo txikikoa, proiektu agroekologikoetara egokitua.

Lege- eta administrazio-estaldura: erakunde edo egitura batek bere gain hartzen du jardueraren arduraren administratiboa eta kontraktuala. Horrek aukera ematen dio testatzaileari proiektua probatzeko, autonomo gisa alta eman edo egitura juridiko propioa sortu beharrik gabe hasierako fasean.

Akonpainamendu integrala: aholkularitza teknikoa, kudeaketa ekonomiko eta fiskalaren inguruko laguntza, merkaturatze-bideen eraikuntza eta, gero eta gehiago, ekonomia sozial eta eraldatzailearen inguruko formakuntza (kooperatibismoa, gobernantza demokratikoa, finantza etikoak).

Helburua ez da soilik "probatu eta ikusi zer gertatzen den", baizik eta proiektuaren bideragarritasuna modu progresiboan ebaluatzea, eta pertsonak edo taldeak erabaki informatua hartu ahal izatea: jarraitu, eraldatu edo bertan behera utzi, ondorio ekonomiko traumatikoak saihestuz.




Test gune motak eta ereduen arteko aldeak

Ez dago eredu bakarra. Zenbait test gune sare estatal edo nazional baten barruan antolatzen dira, metodologia partekatua eta kalitate-irizpide jakin batzuk jarraituz. Beste batzuk tokiko ekimen gisa sortzen dira, eskualdeko beharrei erantzuteko.

Alde nagusiak honako hauetan agertzen dira:

- **Sustatzaileak** (landa-garapen agentziak, elkarteak, kooperatibak, udalak...)
- **Izaera juridikoa** (elkartea, fundazioa, egitura publiko-pribatua...)
- **Testaren iraupena** (bi edo hiru urtekoa ohikoena)
- **Testatzailearekiko harreman kontraktuala** (prestakuntza-kontratuak, hitzarmenak, boluntarioritza-ereduak...)

Eredu aurreratuenek gobernantza partekatua sustatzen dute, non erakunde publikoek, ekonomia sozialeko eragileek eta sektoreko profesionalak parte hartzen duten.



Gainera, faktore humanoari garrantzi berezia ematen diote: test gunea ez da azpiegitura hutsa, komunitate-sarea baizik.

Hego Euskal Herrian martxan dauden Test Guneak

Hego Euskal Herrian gaur egun erreferentziazko hiru nekazal test gune daude martxan, sare estatal batean integratuta. Hona hemen bakoitzaren ezaugarri nagusiak, modu eskematikoan:

1. Haztegia (Bizkaia)

- **Kokapena:** Durangaldea eta Lea-Artibai eskualdeetan, Berriz eta Berriatua udalerrietan banatutako bi finka tan.
- **Sustatzailea/kudeaketa:** Landa-garapeneko egitura batek koordinatua, sare estatal batean integratua.
- **Iraupena:** 3 urte inguruko bidelaguntza.
- **Euskarriak:** Lurra eta azpiegiturak, lege-estaldura eta akonpainamendu integrala.
- **Ezaugarri bereizgarria:** Agroekologian aurretiazko prestakuntza izatea ezinbesteko baldintza da.

2. Aleko (Araba)

- **Kokapena:** Gasteiz inguruan (Araba).
- **Izaera juridikoa:** Elkartre-formatuan antolatua.
- **Testatzailearekiko harremana:** Hitzarmen bidezko lotura; ekoizpen eta salmentaren arabera diru-sarrerak.
- **Babesa:** Estaldura juridikoa eta aseguru-babesak aktibak.
- **Ezaugarri bereizgarria:** Ekonomia sozial eta eraldatzaileko

proiektuak lehenesten ditu, nahiz eta ez izan baldintza formala.

3. Zunbeltz (Nafarroa)

- **Kokapena:** Andia mendilerroaren inguruan (Nafarroa), Abartzuzako, Gesaltzako, Lezaungo, Salinas de Oroko eta Deierriko udalerrien eremuan, Andia Mankomunitatearen baitan.
- **Sustatzaileak:** Tokiko udalak eta landa-eremuko eragileak.
- **Izaera juridikoa:** Elkartre gisa eratua.
- **Helburua:** Belaunaldi-erreleboia sustatzea eta landa-eremuko biztanleria finkatzea.
- **Babesa:** Euskarri fisikoa, akonpainamendu teknikoa eta finantzaketa publikoaren laguntza.
- **Ezaugarri bereizgarria:** Dimentsio publiko-komunitario sendoa eta lurralde-garapenarekin lotura zuzena.

Test gunea eta prestakuntza-programak: osagarritasuna

Zenbait lurraldetan badaude nekazaritza-sektorean belaunaldi berriak sartzea bilatzen duten prestakuntza-programak. Programa horiek formazioa eta jarraipena eskaintzen dute, askotan martxan dauden ustiatzeekin lotuz.

Nekazal test gunea, ordea, urrats bat harago doa: prestakuntzatik ekintzaitzara igarotzeko trantsizio-espazioa da.

Eredu osagarri batean, prestakuntza-programak gaitasun tekniko eta oinarritzko ezagutzak lantzen ditu; test guneak, berriz, proiektu propioa baldintza errealetan probatzeko aukera ematen du. Horrela, instalazio formalaren aurreko fase gisa funtzionatzen du, baina administrazio-eta lege-betebehar zorrotzak saihestuz hasieran.

Ekonomia sozialaren ekarpena


Nekazal test gunea edozein nekazaritza-ereduren zerbitzura jar daiteke. Hala ere, gero eta esperientzia gehiagok agroekologiaren eta ekonomia sozial eta eraldatzailearen ikuspegia txertatzen dute.

Horrek hainbat ondorio ditu:

- **Lurra eskubide gisa ulertzea**, ez ondasun espekulatibo gisa.
- **Proiektu kolektiboak sustatzea**, erresilientzia eta zaintza-logikak indartuz.
- **Gobernantza demokratikoa eta parte-hartzea** erdigunean jartzea.
- **Tokiko merkatu-zirkuitu laburrak** lehenestea.

Test fasea amaitzean, erronka nagusia proiektuak finkatzea da. Hor, ekonomia sozialeko egiturek (kooperatibek, finantza etikoek, interkooperazio-sareek) eginkizun garrantzitsua izan dezakete: aholkularitza juridikoa, egitura kolektiboetan integratzeko aukerak, finantzaketa soziala eta sareko merkaturatzea.

Helburua ez da nekazari indibidual isolatuak sortzea, baizik eta lurraldean sustraitutako ekimen kolektiboak, elikadura-sistema jasangarriago baten parte izango direnak.



Aplikazio praktikorako gakoak

Eskualde batean nekazal test gunea martxan jartzeko, **hainbat elementu estrategiko** kontuan hartu behar dira:

1

Agente motorea: ezinbestekoa da egitura batek lidergoa hartzea eta ardura administratibo eta juridikoa bere gain hartzea. Agente horrek prozesua dinamizatu, eragileak bildu eta finantzaketa-iturriak aktibatu behar ditu.

2

Eragileen sare artikulatua: eskualdeko udalak, landa-garapenerako erakundeak, sektoreko elkarteak eta ekonomia sozialeko sareak elkarlanean aritu behar dira. Gobernantza-egitura argi eta adostua behar da.

3

Lurraren eskuragarritasuna: espazio egokia bermatzea funtsezkoa da. Alokairu soziala, lur publikoaren lagapena edo formula komunitarioak esploratu daitezke.

4

Hasierako inbertsioa: esperientziek erakusten dute espazioaren egokitzapena kostu esanguratsua izan daitekeela. Horri gehitu behar zaio testatzaileari gutxieneko diru-sarrera bermatzeko laguntza. Finantzaketa publikoaz gain, finantzaketa soziala edo interkooperatiboa ere azter daiteke.

5

Ibilbidearen diseinua: testaren aurretik, bitartean eta ondoren zer gertatuko den definitu behar da. Proiektuak nola finkatuko diren, zer egitura juridiko izango duten eta zein sareetara konektatuko diren aurreikusi behar da hasieratik.

Indarguneak eta arriskuak

Nekazal test guneek aukera handiak eskaintzen dituzte: belaunaldi berrien sarrera errazten dute, porrotaren kostua murrizten dute, eta lurraldean berrikuntza soziala sustatzen dute. Gainera, agroekologiaren eta elikadura burujabetzaren aldeko politikekin lerrokatzeko tresna egokia dira.

Hala ere, badituzte arriskuak ere: lurraren espekulazioa, erakunde publikoen inplikazio eskasa, edo egitura konplexuegi bihurtzea. Test fasean proiektuek ekonomikoki irautea ere erronka handia da.

Horregatik, ezinbestekoa da ikuspegi estrategikoa izatea: test gunea ez da helburu isolatua, baizik eta elikadura-sistema bidezkoago eta jasangarriago baterantz egiteko trantsizio-tresna.

Ondorioa

Nekazal test guneak ez dira mirari-soluzioa, baina bai tresna eraginkorra. Nekazaritzan hasteko baldintza duinagoak sortzen dituzte, arriskuak partekatzen dituzte, eta komunitatearen babesa artikulatzen dute. Gainera, ekonomia sozialaren eta agroekologiaren ikuspegitik diseinatzen direnean, lurraldean errotutako proiektu kolektiboak sustatzeko potentzial handia dute.

Etorkizuneko elikadura-sistemak eraikitzeko, ez da nahikoa diskurtsoa aldatzea; egiturak behar dira. Nekazal test guneak egitura horietako bat izan daitezke: lurra, lana eta komunitatea berriz konektatzeko trantsizio-espazio segurua.

Ikerketa osoa ikusgai:
www.behatokia.bdskoop.eus

Bibliografia klabea:

- Biolur (2020). Duina, baratza ekologikoen bideragarritasunaren lanketa kolektiboa.
- EHNE Bizkaia. (2025). Nekazaritzako test-guneak, belaunaldi-erreleboa laguntzeko tresna berriak.

LAGUNGARRI:

ETXEBIZITZA ETA BIZITZA KOLEKTIBOTIK PENTSATZEA

ELKARRIZKETATZAILEA: BDSKOOP ELKARTEA
ELKARRIZKETATUA: LAGUNGARRI COHOUSING
ARGAZKIAK: LAGUNGARRI COHOUSING

Lagungarri cohousing proiektu gisa sortu da, gero eta pertsona gehiagok bizitzeko eta zahartzeko modu berriak bilatzen dituzten testuinguru batean.

Zein behar eta amets partekatuk daude proiektuaren jatorrian?

Datozen urte guztien jabe izan nahi dugu, gure bizitzako alderdi guztiei buruz erabakitzen jarraitu, eta "uhin berean" gauden pertsonekin egin nahi dugu. Bizitza aktiboa, jasangarria, energia berriztagarrietan, Km0an eta naturarekiko errespetuan oinarritua izango duen komunitate bat eraikitzen ari gara. Konpainian bizitzea, espazio-denbora pribatua eta partekatua uztartuz.

Etxebizitza-irtenbidetik harago, zer irudikatzen aukera ematen dizue cohousingak bizitza beste modu batean antolatzen abiapuntu gisa?

Hasieratik ari garela elkarrekin erabakitzen zer nahi dugun eta nola nahi dugun. Balio partekatuetan oinarritzen den kolektibo inplikatuak gara.

Proiektua ora indik bultzada eta eraikuntza kolektiboaren fasean dago.

Zein garrantzi du zuentzat espazio fisikoa eraiki aurreko prozesuak?

Funtsezkoa dela uste dugu: loturak estutzea, elkar ezagutzen joatea eta komunitatean antolatzea, horrek dakarren konplexutasun guztiarekin. Funtzionatzeko eta erabakiak hartzeko moduak probatzea eta aukeratzea proiektuaren parte da.

Hasierako bide honetan, zein Ekonomia Sozial eta Eraldatzaileko balio ari dira iparrorratz gisa baliatzen talde sustatzaile gisa erabakiak hartzeko?

Irabazi asmorik gabeko kooperatiba bat sortzen ari gara, higiezinaren espekulazioa saihestuz eta etxebizitzak erabilera-lagapeneko erregimenean bizitzeko sortuz, energetikoki jasangarriak izango direnak. Finantzaketa banku etikotik etorriko da, gaur egun halako proiektuak babesten dituen banku bakarra baita.

Erabilera-lagapeneko etxebizitza kolaboratiboak ez du berezko marko juridikorik Euskal Autonomia Erkidegoan. Bidea irekitzen ari gara, eta uste dugu etorkizunean beste etxebizitza-kooperatiba askorentzat erreferentzia izan daitekeela.

Proiektua ora indik bizitua ez bada ere, komunitateaz hitz egiten da jada. Nola ulertzen duzue elkarbizitza hasi aurretik komunitatea eraikitzea, eta zein elementu jotzen dituzue funtsezkotzat hasierako fase honetan?

Elkar ezagutzeko, partekatzen eta elkarrekin lan egiteko moduak bilatzen ari gara. Adibidez, topaketak, irteerak eta bestelako

jarduerak antolatzen dituen lan-talde bat dago.

Bazkide guztiak ez gara ingurukoak, eta horregatik "Online Kafeak" sortu ditugu: internet bidezko komunikazio-sarea eta topagune bat guztiontzat.

Bizitza kolektiboak antolaketa-modu zehatzak eskatzen ditu.

Nola ari zarete erabakiak hartzea, parte-hartzea eta erantzukizun partekatua lantzen proiektuaren une honetan?

Proiektu hau bultzatu zuten lehen pertsonak osatzen duten Talde Kudeatzaileak, lan-taldeak eta Arrasate Taldearen aholkularitza juridikoak osatzen dute proiektuaren gidaritza.

Erabaki garrantzitsuenak asanbladan hartzen dira, eta kooperatiba bihurtzen garenean ere hala izango da.

Denbora gutxian asko hazi gara: proiektuko 51 apartamentuetatik 41 esleituta daude jada. Hasierako 3-4 pertsonako talde ausart hartatik, 2025eko abenduan 50 lagun gara. Beharrak eta helburuak agertzen diren heinean, horiei erantzuteko lan-taldeak sortzen ari gara.

Proiektua komunitatean zahartzeko borondate argiarekin sortu da. Nola ari zarete epe ertain eta luzearako zaintzak pentsatzen, eta zer ekarpen egiten du cohousingak adinekoen arretarako beste eredu tradizionalagoekin alderatuta?

Lehenik eta behin, argitu nahi

dugu zaintzak ez direla mendekotasuna rekin hasten. Lagungarrin sartzen garen unetik bertatik elkar zaintzen ikasten ari gara. Adiskidetasun- eta lankidetzeta-loturak sortzen ari gara, eta lehen momentutik ari gara elkar zaintzen.

Aipatu dugun bezala, badaude ikerketa zientifikoak erakusten dutenak bizikidetzeta-eredu honetan pertsonen urte gehiago bizi dituztela, osasun hobea rekin eta bizitza aktiboagoarekin.

Gure helburua da, gure ahalmenen barruan, sortzen diren beharrak estaltzen joatea, norberaren apartamentuan bizitzen ahalik eta denbora gehien luzatzeko. Era berean, elkarri lagunduko diogu dagozkigun laguntza publikoen izapideetan.

Gainera, beharrezkoa balitz, 24 orduko zaintza profesionalerako espazio bat aurreikusita izango dugu.

Egoitza edo etxez etxeko arreta eredu tradizionalekin alderatuta, cohousingean pertsona bakoitza da bere bizitzaren eta erabakien protagonista. Etxean egongo gara, gure lagunen artean. Gure senideek lasaitasuna izango dute gu pozik ikustean, eta ez dute gure orde z erabaki behar izatearen ardurarik izango.

Behar dugun arretaren gainbegiratzea guk geuk egingo dugu, une bakoitzean beharrak behar bezala instalita daudela bermatzeko.

Ikuspegi horretatik, zer esan nahi du praktikan “bizitza erdigunean jartzeak” etxebizitzaz, zaintzez eta eguneroko antolaketaz ari garenean, proiektua oraindik eraikita ez dagoenean ere?

Pertsona guztien bizitza lehenestea esan nahi du. Une honetan elkarrekin gara, eta laster kooperatiba izatera pasako gara.

Lan-taldetan antolatuta gaude (ekonomia, bazkide berrieekin harremanak, irudia eta komunikazioa, ekitaldiak...).

Oraindik asko dugu bizitzeko, asko emateko eta banaka zein kolektiboki garatzen jarraitzeko gogo handia dugu.

Elkar zaintzen dugun eta zainduko dugun komunitate bat eraikitzen ari gara, eta bertan gure egunak amaitu nahi ditugu. Lehenengo zaintza konpainian egotea da.

Antolaketa- eta alderdi tekniko z harago, zer ari da suposatzen maila pertsonalean Lagungarriko kide izatea hasierako fase honetan?

Zintzo esanda, lan handia eta ilusio bera. Asko ematen digu maila pertsonalean eta harremanetan, eta ikaskuntza mailan ere bai,



guztiontzat berria delako. Gainera, EAE-n ora indik araututa ez dagoenez, ez dago jarraitu ahal dugun “eskulibururik”.

Gure etorkizuna diseinatzen ari gara, amestu dugun bezala.

Aldatu al da zuen etorkizunari, zahartzeari edo etxearen ideari buruzko modua?

Erabat. Lasaitasun handia ematen du etorkizunean non, nola eta norekin egongo garen jakiteak. Ahalduntuta sentitzen gara, horrelako erabaki garrantzitsuak hirugarrenen esku utzi gabe.

Lagungarrik bere burua ingurunearekin lotuta pentsatzen du. Zein paper jokatu nahi du proiektuak lurraldean eta garatuko den tokiko bizitza sozialean?

Herrigunean gaude, eta urbanizazio irekia izan nahi dugu, Murgiako eta inguruko jendearentzat irisgarria. Inguruko jardueretan parte hartu nahi dugu, herriko bizitzaren parte izan.

Gure asmoa ez da baliabideak bikoiztea. Adibidez, ez dugu gure korua sortuko, herrian jada badagoelako.

Murgiako bizitzarako baliabide bat gehiago izan nahi dugu, espazioetan, jardueretan eta harremanetan.

Orain arteko esperientziatik abiatuta, zer ikaskuntza uzten ari zaizue etxebizitza bezalako esparru zentral batean proiektu kolektibo bat bultzatzeak?

Oso talde a nitza gara, eta guztiontzat berria da erabilera-lagapeneko etxebizitza-kooperatiben mundua. Abentura oso pizgarria da, lan handia, ilusio handia eta lurralde berriak esploratzeko gogoia eskatzen dituen.

Zuen diskurtsoan sarri agertzen

da Lagungarri “bidea irekitzen” ari dela. Esperientzia zehatz horretatik abiatuta, zein oztopo eta ikaskuntza nabarmenduko zenituzkete antzeko proiektuak bultzatu nahi dituzten beste talde batzuentzat, bereziki marko juridikoa eta babes instituzionala oraindik mugatuak diren lurraldeetan?

Ora indik elkartea garenez eta laster kooperatiba izango garenez, topatu ditugun oztopoetako batzuk hauek dira: EAE-n ez dago lur publikoen erabilera-lagapenik halako proiektueta rako, ezta dirulaguntza espezifikorik ere, ez baikara izango ez jabe ez errentari gure etxebizitzetan. Kooperatiben legeak ere ez du marko egokirik eskaintzen eredu honentzat.

Aholkularitza handia behar da, eta informazioa etengabe bilatu behar da arlo guztietan. Ikaskuntzei dagokienez, Estatuko beste senior cohousing esperientzietan oinarritzen ari gara, baina kontuan hartu behar da ez dela “kopia eta itsatsi” daitekeen eredu. Komunitate bakoitzak erabakitzen du bere cohousinga nola arautu.

Gure kasuan, senior cohousing izanik, ezin gara administrazioak lur bat lagatuko digun zain geratu. Seguru asko urte gutxi barru proiektu mota hauek errazagoa izango dute bidea, eta hori da desiragarria den norabidea.

Amaitzeko, etorkizunari begira: zer ekarpen egitea gustatuko litzaizueke Lagungarrik epe ertain eta luzera etxebizitzaren, zaintzen eta Ekonomia Sozial eta Eraldatzailearen inguruko eztabaidan?

Proiektu berrientzako inspirazio-iturri izatea gustatuko litzaiguke, eta gure ibilbideak eredu hauei egokitutako legeria garatzen laguntzea, beste autonomia-erkidego batzuetan dagoen bezala.

Eztabaida sozialari dagokionez:

- Alokairuaren eta erosketaren joko espekulatiboari alternatiba bat eskaintzen du.
- Bere tamainagatik jasagarria eta ingurumenarekiko errespetuzkoa da, alferrikako xahuketak saihestuz.
- “Hirugarren adina” deritzona ren balioa berreskuratzen du, bere bizitzaren jabe eta protagonista izaten jarraitu nahi duelako.
- Eta gaur egungo gizartearen indibidualismo gero eta handiagoa zalantzan jartzen du.

ZAINZA KOOPERATIBA INTEGRALA: KRISI SISTEMIKO BATI ERANTZUN KOLEKTIBOA

IKERKETA LANA: AMAIA AROTZENA TXURRUKA, OLATUKOOP-KOOPDENONTZAT
ARTIKULUA: DORNAKU LANZ SOLBES

Zaintza ez da sektore ekonomiko huts bat; bizitza sostengatzeko funtsezko jarduera da. Hala ere, gaur egungo eredu ekonomikoan, zaintza lanak ikusezin bihurtu dira, feminizatu eta arrazializatu, eta prekaritatean antolatu. Zaintza krisiaz hitz egiten dugunean, ez gara soilik zerbitzu falta bati buruz ari: bizitza eta merkatuaren arteko talka estruktural bati buruz ari gara.

Honako artikuluan BDSKoop Elkarteko Trantsizio Ekosozialerako Behatokirako Amaia Arotzena Txurrukak garatutako ikerketan identifikatutako klabeak agertzen dira. Klabe hauek Olatukoop-eko KoopDenontzat programatik eratorritako ikerketek ezarritakoak dira, eta gero Irungo Udalerriko

abordaia egiteko azterketa lana egiteko aplikatuak. Hau da, lekuan lekuko lanketa egiten hasteko marko amankomun interesgarria ezartzen dute.

Honako artikuluan BDSKoop Elkarteko Trantsizio Ekosozialerako Behatokirako Amaia Arotzena Txurrukak garatutako ikerketan identifikatutako klabeak agertzen dira. Klabe hauek Olatukoop-eko KoopDenontzat programatik eratorritako ikerketek ezarritakoak dira, eta gero Irungo Udalerriko abordaia egiteko azterketa lana egiteko aplikatuak. Hau da, lekuan lekuko lanketa egiten hasteko marko amankomun interesgarria ezartzen dute.

Zaintza sistemaren oinarri estrukturalak

Zaintza sistema ulertzeko ezinbestekoa da ikuspegi interseksionala. Zaintza lanen eremuan gurutzatzen dira patriarkatua, arrazakeria eta kapitalismoa. Historikoki, emakumeek —eta bereziki emakume migratzaile eta arrazializatuek— hartu dute bere gain bizitza erreproduzitzeko lana: haur eta adinekoen zaintza, etxeko lanak, laguntza emozionala, eta eguneroko mantentze-lanak. Lan horiek doan edo oso baldintza prekarioetan egin dira.

Kapitalismoak ezin izango zukeen garatu emakumeen lan ikusezina eta kolonialismoak sortutako hierarkia arrazialak gabe. Zaintza lanen merkantilizazio progresiboak ez du egoera hori gaituztu; aitzitik, etxe barruko lan informalak kontratu pribatu eta askotan irregularren bidez antolatzen dira, babes kolektiborik gabe.

Ekonomia feministak planteatzen duen moduan, gizakiak interdependentek gara. Ez dago “subjektu autonomo” eta autosufizienterik. Bizitzako fase askotan —haurtzaroen, zahartzaroen edo mendekotasun egoeretan— zaintza berezia behar da. Hortaz, zaintza ez da kostu bat, baizik eta oinarri ekonomiko eta soziala.

Zaintza krisia eta transizio beharra

Gaur egungo zaintza ereduak hiru dimentsiotan huts egiten du: aitortzan, berdintasunean eta iraunkortasunean.

- **Aitortza:** Zaintza lanak gutxi baloratuak eta gutxi ordainduak dira.
- **Berdintasuna:** Emakume migratzaileek pairatzen duten diskriminazio bikoitza (generoa eta jatorria) egiturazkoa da.
- **Iraunkortasuna:** Aberastasun metaketa eta hazkunde mugagabea lehenesten dituen ereduak ez du bizitza erdigunean jartzen. Horren aurrean, transizio ekosozial batek zaintza erdigunean jarri behar du. Eta horretarako, beharrezkoa da antolaketa kolektibo berriak sortzea. Zaintza kooperatiba integrala ez da soilik forma juridiko bat; antolaketa politiko eta ekonomiko bat da. Ez da enpresa eredu “alternatibo” bat bakarrik, baizik eta zaintza nola ulertzen dugun eta nola antolatu nahi dugun adierazten duen proposamen oso bat. Zaintza ez du merkatu logika hutsaren menpe jartzen, baizik eta komunitatearen, lan duinaren eta erantzukizun publikoaren arteko gurutzagunean kokatzen du.

Bere **ezaugarri nagusiak** hauek lirateke:

- **Langile bazkideak**, gehiengo osatuz eta esplotazioa saihesteko. Langileak ez dira zerbitzu emaile hutsak; kooperatibaren jabe eta erabakitzaiak dira. Horrek esan

nahi du lan baldintzak, erritmoak, zerbitzuaren kalitatea eta barne antolaketa kolektiboki erabakitzen direla. Gehiengo izateak bermatzen du kapitalak ez duela lehentasuna izango lanaren gainetik.

- **Erabiltzaile bazkideak**, zaintza nola antolatzen den erabakitzeke parte hartuz. Zaintza jasotzen duten pertsonak edo haien ingurukoak ez dira bezero pasiboak; zaintzaren antolaketan ahotsa dute. Horrek zerbitzuaren egokitzapena, gardentasuna eta konfiantza indartzen ditu, eta zaintza harremana merkataritza-truke hutsetik harago eramaten du.

- **Bazkide laguntzaileak** (eragile sozialak, komunitateko sareak...), babesa eta legitimitatea emanez. Zaintza ez da soilik bi pertsonaren arteko harremana; testuinguru sozial eta politiko batean gertatzen da. Eragile sozialek, mugimenduek edo komunitateko sareek kooperatibaren inguruan egoteak egonkortasuna, ikusgarritasuna eta babes politikoa ematen ditu.

- **Administrazio publikoaren inplikazioa**, hasierako kapitalizazioan eta egonkortasunean lagunduz. Zaintza interes publikoko jarduera da. Horregatik, kooperatiba integrala ez da administrazioaren ordezkari bat, baizik eta harekin lankidetzan aritzeko tresna bat. Hasierako urteetan laguntza publikoak funtsezkoak izan daitezke egitura sendotzeko eta prekaritate logikatik ihes egiteko.

Kooperatibismoak demokrazia ekonomikoa sustatzen du: langileek erabakitzen dute zer eta nola ekoizten den, eta etekinen banaketa bidezkoagoa da. Horrek merkatu logika tradizionala apurtzen du, non kapital inbertitzaileak erabakitzen duen eta langileak mendeko diren. Zaintza sektorean, horrek hainbat ekarpen egin ditzake:

Lan baldintzetan

- **Bitartekarien irabaziak ezabatuz**, soldata duinagoak. Zaintza enpresa askotan irabazi marjina enpresaren esku geratzen da. Kooperatiban, balio hori langileen artean eta egituraren sendotzean geratzen da.
- **Bezero zorro kolektiboa**, lan jarraikortasuna bermatzeko. Banakako kontratazioaren ordezkari, kooperatibak eskaera kudeatzen du. Horrek lan etenaldiak murrizten ditu eta segurtasun handiagoa ematen du.
- **Espezializazio eta prestakuntza bidezko profesionalizazioa**. Zaintza ez da “edozeinek egin dezakeen” jarduera. Prestakuntza jarraitua, espezializazioa eta jakintza partekatuak sustatuz, sektorearen aitortza eta kalitatea handitzen dira.
- **Lan eskubideen monitorizazio kolektiboa**. Kontratuak,

ordutegiak eta oporrak ez dira indibidualki negoziatzen; kooperatibak berak bermatzen ditu gutxieneko duintasun irizpideak.

Bizi baldintzetan

- **Elkarrekiko babes sarea.** Lan gatazken, gaixotasunen edo zailtasun pertsonalen aurrean, ez dago bakardaderik. Kooperatibak komunitate sare bat eskaintzen du.
- **Eskubide sozialen inguruko informazioa eta aholkularitza.** Gizarte segurantz, prestazioak edo erregularizazio prozesuak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubide kontua da. Kooperatibak informazioa sistematizatu eta eskuragarri jartzen du.
- **Erregularizazio prozesuetan laguntza.** Kontratatzeko gaitasun kolektiboak eta aholkularitza juridikoak aukera errealeak sor ditzakete administrazio egoera irregularrean dauden pertsonentzat.
- **Denbora propioa izateko aukera.** Lan jarraikortasunak eta antolaketa kolektiboak oporrak eta atsedenaldira planifikatzeko aukera ematen dute, lana galtzeko beldurrik gabe.

Antolaketa politikoan

- **Zaintzaile migratuentzako erreferentziako espazioa.** Kolektibo historikoki ikusezin batek ahotsa eta presentzia kolektiboa lortzen du.
- **Mugimendu feministarekin, sindikalarekin eta kooperatiboarekin aliantzak.** Zaintza ez da sektore isolatua; borroka zabalagoen parte da. Kooperatibak zubi lana egin dezake.
- **Subjektu kolektibo gisa agertzeko gaitasuna.** Banakako langile sakabanatuen orde, eragile politiko antolatu bat sortzen da, egiturazko aldarrikapenak egiteko gai dena. Integral izaerak aliantza horiek ahalbidetzen ditu, eskaintza eta eskaria egitura berean uztartuz eta komunitatean errotuz. Ez da soilik zerbitzu bat emateko modua; zaintza kolektiboki pentsatu eta antolatzeko modu bat da, non bizitza eta lan duina erdigunean jartzen diren.

Zaintza kooperatiba bat sortzeko pauso estrategikoak

Edozein testuingurutan, ekitea arriskutsua da. Are gehiago zaintza bezalako sektore prekarizatuan.

Horregatik, ezinbestekoa da pauso sendoak ematea eta espektatiba faltsurik ez sortzea.

1. Bideragarritasun ekonomiko zorrotza

Lehen urratsa analisi ekonomiko errealista egitea da: gutxieneko bazkide kopurua, zerbitzu prezioak, soldata duinak eta egitura kostuak kalkulatu. Hasierako urteetan diru-laguntzak eta kanpo finantzaketa bilatu behar dira, sorrerako lan boluntarioa gehiegizkoa ez izateko.

2. Bazkide egitura osatzea

Hiru ardatz behar dira:

- **Bazkide langileak:** ekiteko prest eta egoera pertsonal egonkorrean dauden zaintzaileak.
- **Bazkide kolaboratzaileak:** aholkularitza juridiko, fiskal eta estrategikoa emango duten eragile konprometituek.
- **Bazkide erabiltzaileak:** zaintza duina ordaintzeko prest dagoen komunitate kontzientea. Erabiltzaile sare hori sortzea funtsezkoa da. Zaintzak balioa duela eta prezio duina behar duela sozialki onartu behar da.

3. Prestakuntza eta ahalduntzea

Langile bazkideek kooperatibismoan, kudeaketan, fiskalitatean eta hizkuntza gaitasunetan trebatu behar dute. Prestakuntza formalaz gain, jakintza informala — esperientzien partekatzea — ezinbestekoa da.

4. Gobernantza demokratikoa

Irabazi asmorik gabeko kooperatiba integrala litza teke eredu. Bazkide guztiek boto eskubidea izango lukete, baina langileek gehiengo izan beharko lukete erabaki estrategikoetan, lanaren esplotazioa saihesteko.

Arriskuak eta aukerak

Zaintza kooperatiba integral baten sorrera ez da bide erraza. Arrisku nagusiak argi identifikatu behar dira, ilusioak errealismoarekin uztartzeko. Lehenik, atzeritartasun legearen mugak oztopo estrukturala dira. Zaintza sektorean lan egiten duten emakume askok administrazio egoera irregularra dute edo baimenak baldintza jakin batzuen menpe berritu behar dituzte. Kooperatiba batek ezin ditu lege horren kontraesan guztiak konpondu, eta arriskua dago proiektu kolektibo baten egonkortasuna egoera juridiko zaurgarrietan oinarrituta geratzea.

Bigarrenik, merkatu pribatuaren lehia prezio baxuetan. Zaintza zerbitzu asko prezio minimoetan eskaintzen dira, sarritan lan baldintza prekarioen kontura. Kooperatiba batek soldata duinak eta lan eskubideak bermatu nahi baditu, ezin du prezio horiekin lehiatu logika berean. Horrek eskatzen du komunitate kontziente bat, zaintzaren benetako kostua onartzeko prest dagoena.

Hirugarrenik, barne gatazkak eta kudeaketa erronkak.

Kooperatibek demokrazia ekonomikoa sustatzen dute, baina horrek ere denbora, konpromisoa eta trebakuntza eskatzen ditu. Erabaki kolektiboak hartzea ez da beti erraza, eta gatazkak ager daitezke botere harreman zaharrak edo itxaropen desberdinak agertzen direnean. Azkenik, gehiegizko itxaropenak sortzeko arriskua dago.

Zaintza kooperatiba bat ez da berehala bizitza guztiak eraldatuko dituen soluzio magikoa. Prozesu luzea da, eta emaitzak pixkanaka eraikitzen dira. Espektatiba faltsuek frustrazioa eta desmobilizazioa eragin ditzakete. Hala ere, aukerak ere nabarmenak dira.

Badago kontzientzia feminista eta antiarrazista duen komunitatea, zaintza lanen balioa aitortzeko prest dagoena. Diskurtso soziala aldatzen ari da, eta gero eta gehiago dira zaintza erdigunean jarri nahi duten pertsonak.

Gainera, zaintza beharra hazten ari da zahartze demografikoaren ondorioz. Horrek ez du automatikoki eredu justuago bat bermatzen, baina egitura berriak sortzeko aukera irekitzen du. Zaintza eskaera handitzen denean, galdera da: nola antolatuko dugu? Merkatuaren bidez ala komunitatearen bidez?

Bestalde, lan baldintza duinak eskaintzen dituzten alternatiben gabezia bera da aukera bat. Sektorean hutsune nabarmena dago, eta kooperatiba integral batek erreferentzia positibo eta eraldatzailea izan daiteke. Kooperatiba integral batek balio feministak, antiarrazistak eta antikapitalistak praktikan jar ditzake. Diskurtso hutsetik harago, eguneroko antolaketa islatzen dira: erabaki kolektiboetan, etekinen banaketan, zaintzaile eta erabiltzaileen arteko harremanetan. Horrek pertenezia eta harrotasun kolektiboa sor dezake, sektore historikoki gutxietsian duintasuna eta aitortza eraikiz.

Kooperatibaz harago: zaintza kolektibizazioa
Kooperatiba integrala bide sendo bat izan daitekeen arren, ez da aukera bakarra. Zaintza kolektibizazioa helburu zabalagoa da, eta hainbat tresna erabil daitezke horretarako.

• **Lurralde ezberdinetako zaintza kooperatiben arteko interkooperazioa.** Esperientzia metatua partekatzea, baliabideak optimizatzea eta elkarren artean babesa eskaintzea funtsezkoa izan daiteke. Lehiaren logikaren ordez, elkarlanaren logika indartzen du horrek.

• **Lan-poltsa eta intermediazio etikoa egingo duen elkarte egitura.** Kooperatiba egiturara iritsi aurretik edo harekin batera, posible da lan baldintza minimo duinak bermatuko dituen bitartekaritza eredu bat sortzea. Horrek

merkatu informalearen gehiegikeriak murriztu ditzake eta gardentasuna handitu.

• **Jada existitzen diren proiektu komunitarioak indartzea.** Zaintza arloan lanean ari diren sare, elkarte eta ekimenak badaude. Haien lana sendotzea, baliabide gehiago jartzea eta koordinazioa hobetzea ere kolektibizazio estrategia bat da.

Helburua ez da marka edo egitura jakin bat sortzea soilik; zaintza merkantzia hutsa ez izatea baizik. Hau da, zaintza ez dadila soilik prezio baten arabera neurtu, baizik eta harreman sozial, komunitario eta politiko baten parte izan dadila.

Ondorio gisa

Zaintza kooperatiba integrala ez da panazea, baina bai trantsizio ekosozial baterako tresna indartsua. Ez ditu arazo guztiak konponduko, baina gaur egungo eredu eraldatzeko urrats zehatz eta praktikoa da.

Bizitza erdigunean jartzen duen ekonomia baterantz bidea irekitzen du: lan duina, parte-hartze demokratikoa eta komunitatean errotutako zerbitzua uztartuz. Arriskutsua da, bai; ekiteak beti dakar ziurgabetasuna. Baina alternatibarik gabe, prekaritateak jarraituko du norma izaten, eta zaintza lanek ikusezin eta gutxietsita jarraituko dute.

Galdera ez da ea posible den, baizik eta ea prest gauden zaintza kolektiboki antolatzeko eta bizitza —benetan— lehenesteko. Prest gauden lanaren eta zaintzaren arteko hierarkia hausteko, eta ekonomia bizitzaren zerbitzura jartzeko.

Ikerketa osoa eskuragarri:
www.behatokia.bdskoop.eus web atarian.

Behatokian marko hau Irungo errealitatean lurreratu zen. Hau da, marko orokorreko baldintzak lurralde konkretura ekartzeko adibidea da Behatokia.

Bibliografia iturri nagusiak (marko orokorra ezartzen dutenak):

- Olatukoop. (2021). Generoa, zaintza eta migrazioa dokumentala <https://www.argia.eus/multimedia/erreportajeak/etxe-barrutik-argitara>
- OlatuKoop. (2019a) Cooperativizar los cuidados ¿Herramienta útil para el empoderamiento económico y político? Género, migración, cuidados, trabajo y cooperativas: Estudio y propuesta desde la EST
- Olatukoop. (2019b). Koop denontzat: Generoa, migrazioa eta zainketen krisia. Mugimendu kooperatibistatik aportazioak.



ECOS:

BARTZELONAKO POLO KOOPERATIBO BAT

TESTUA: BDSKOOP ELKARTEA

ARGAZKIAK: BAKU BARRIKUPEL KOOPERATIBAK ERRAZTUAK

ELKARRIZKETATUA: AMAIA PRIETO ATXOTEGI (BAKU BARRIKUPEL KOOPERATIBAKO KID)



ECOS BARTZELONAKO BIHOTZEAN KOKATUTAKO POLO KOOPERATIBOA DA, HAU DA, PENINTSULAKO HIRI HANDIENETAKO BATEN ERDI-ERDIAN EKONOMIA SOZIALA SUSTATZEN DIARDUEN SARE KOOPERATIBOA DA. HAIENGANA HURBILDU GARA ELKARRIZKETA EGITERA.

Zer da ECOS eta nola definitzen duzue zeuen burua polo edo ekosistema gisa?

ECOS Ekonomia Sozial eta Solidarioko (ESS) 16 kooperatiba eta erakundek osatutako taldea da, jarduera-eremu oso desberdinetan lan egiten duguna. Gaur egun, **216 langilek osatzen dute sarea eta 5.200 kontsumo-bazkide baino gehiago** biltzen ditugu. Taldearen **jarduera ekonomikoa 9,8 milioi eurotik gorakoa da** (2025eko maiatzeko datuak).

Partekatzen dugun ikuspegia **argi politikoa eta eraldatzailea da: kapitalismotik aske izango den gizarte baterantz aurrera egitea**. Horren baitan, **ECOSen arrazoia merkatu soziala handitzea da**, pertsona, erakunde eta sektore ekonomiko gero eta gehiago ESSera hurbilduz, **bazkide diren kooperatiben lanaren eta haien arteko interkooperazioaren bidez**.

Taldea hainbat helbururekin sortu zen: **bazkide diren kooperatibak indartzea eta garatzea**, horietan lan egiten duten pertsonen ongizatea hobetuz; **barne eta kanpo interkooperazioa bultzatzea**, ikaskuntza kolektiboak sistematizatuz; eta **ESSaren artikulazio sektorial eta territorialean parte hartzea**, bigarren mailako sareak eta egiturak sendotuz.

Hasierako intuizioa **krisi ekonomikoaren testuinguruan** sortu zen. **2026ko irailean 15 urte beteko ditu ECOSek**, eta atzera begiratuta, elkartzeko erabakia —esfortzu handia eskatzen bazuen ere— **ikuspegi estrategiko argi bati erantzuten zion**: zentzuzkoagoa zen zailtasunei **kolektiboki aurre egitea**, bakarka saiatu beharrean. Denborarekin, ECOS interkooperazioaren erreferente bihurtu da.

Taldeak parte hartzen du bai Kataluniako sareetan (Xarxa de Pols Cooperatius i d'ESS de Catalunya), bai estatu mailakoetan



(Polo Kooperatiboen Sare Estatala). Gainera, bazkide diren kooperatiba batzuk erreferenteak dira beren sektoreetan, hala nola Sostre Cívic etxebizitza kooperatiboan edo Arç Kooperatiba finantza etikoetan.

Nola eboluzionatu du ECOSek 2011n sortu zenetik?

Taldearen bilakaera **nabarmena** izan da. ECOS **sei kooperatibarekin eta berrogeita hamar pertsona ingururekin** hasi zen, eta gaur egun **biltzen** ditu.

Urte hauetan, ECOSek **kooperatiba berrien sorrera eta sendotzea** lagundu du, besteak beste **Ilabso, Facto, Fil a l'Agulla, Calidoscoop, iACTA edo Arquitectura de Contacte** bezalako proiektuak. Gainera, **interkooperazio-prozesuetatik sortu dira proiektu berriak, hala nola LabCoop, Quèviure eta Opcions.**

Halaber, taldeak **paper garrantzitsua** izan du **Kataluniako Ekonomia Solidarioko Sarearen (XES)** hazkunderan, baita **Kataluniako Lan Kooperatiben Federazioaren** barruan ESSaren balioetara egindako eraldaketan ere.

Beste mugarri esanguratsu bat izan da **polo kooperatiboen eta ESS sareen sorrera eta sendotzea**, bai Katalunian bai estatu mailan, haien definizioan eta garapenean aktiboki parte hartuz.

Zer esan nahi du ECOSentzat Bartzelonan kokatuta egoteak?

Gaur egun, **ECOS bere burua argi eta garbi talde kooperatibo sendotu gisa definitzen du, dimentsio fisiko handikoa, baina oraindik ez polo kooperatibo guztiz lurraldetu gisa.**

Elkarrekiko oso hurbil dauden bi lokalen erosketa aukera estrategiko garrantzitsua da. Espazio horiek **Bartzelonako erdigune burges batean** kokatzen dira, **ehun sozial urriarekin**, eta horrek erronka eta aukera berriak irekitzen ditu. Helburua da **auzo mailako ekosistema kooperatibo eta solidario bat** eraikitzen hastea, inguruko

beste kooperatiba eta erakundeekin harremanak aktibatuz, espazioen erabilera partekatua aztertuz eta **ESSaren presentzia ikusgarri eginez.**

Une honetan, ECOSek **espazio fisiko komuna kudeatzen duen polo baten funtzioak** betetzen ditu, baina **ekosistema territorial osorako jauzia oraindik eraikitzen ari den prozesua da.**

Nola artikulatzen da jarduera-eremuen aniztasuna ECOSen barruan?

ECOSek **16 kooperatiba bazkide** eta **5 erakunde kolaboratzaile** biltzen ditu (Compcal-Talaia, FETS, Roca i Galès Fundazioa, Finances Ètiques Fundazioa eta XES). Jarduera-eremuak oso desberdinak izan arren, **artikulazioa interes transversal partekatuetan oinarritzen da.**

Lehenik eta behin, **lanerako espazio fisiko komun bat izateko beharra** dago, gaur egun polo kooperatibo gisa funtzionatzen duena eta **kanpoko beste erakunde batzuei ere irekia dagoena.** Bigarrenik, **prestakuntza-behar partekatua** daude: kudeaketa kooperatiboa, barne-prozesuen hobekuntza, datuen babesa, teknologia, hizkuntzak edo lanaren antolaketa.

Horrez gain, **baliabideak mankomunatzen dira: jazarpenaren aurkako protokolo bateratua**, erosketa kolektiboak, komunikazio- eta ikusgarritasun-kanal partekatua, eta **Elkartasun eta Inbertsio Funtza**, besteak beste.

Azkenik, ECOSek **ordezkaritza kolektiboa** ahalbidetzen du erreferentziazko espazioetan (XES, Lan Kooperatiben Federazioa, plataformak...). Interkooperazioa **“geometria aldakorreko” logikarekin** funtzionatzen du: ez dute kooperatiba guztiek gauza guztietan parte hartzen, interesen eta gaitasunen arabera.

Zer irizpide betetzen dira ECOSeko bazkide izateko?

ECOSek ESSaren balioetan oinarritzen du bere jarduna, eta bazkide izateak konpromiso-maila handia eskatzen du.

Kooperatibek **XESeko bazkide izan behar dute** eta **finantza etikoetako erakunde batekin lotura** eduki (Fiare edo Coop57). Halaber, **urtero Balantze Soziala** egin behar dute, gardentasun- eta kontu-emate tresna gisa.

Era berean, **informazioa partekatzeko konpromisoa** eskatzen da: lan-planak, aurrekontuak, itxierak edo prestakuntza-planak. Bazkideek **denbora liberatua eskaini behar dute gobernantza-espazioei eta ekarpen ekonomikoa egin taldearen iraunkortasunerako.**

ECOSeko bazkide izatea **ahalegin handia** da, baina aldi berean **kolektibo sendo, ezagun eta eraldatzaile baten parte izatea.**



Nola funtzionatzen du interkooperazioak ECOSen barruan?

ECOSeko interkooperazioa **ez da merkataritza bateratuan oinarritzen**. Hasieratik baztertu zen eredu hori, aurreko esperientzien azterketaren ondoren. Helburua ez da izan zerbitzuen katalogo bateratu bat sortzea, baizik eta **bazkideen iraunkortasuna, hazkundera eta sendotzea** bermatuko zituen egitura bat eraikitzea.

Interkooperazioa, batez ere, **kudeaketa-behar partekatuetan, barne-prozesuen hobekuntzan eta baliabideetarako sarbidean** oinarritzen da. **Intangiboa da neurri handi batean, baina adierazpen material argiak** ere baditu.

Adibide esanguratsua da **jazarpenaren aurkako protokolo bateratua**: 16 protokolo ez sortzea erabaki zen, **bakarra** garatuz.

Prozesua konplexua izan zen, baita lege-aldaketak behar izan zituen ere, baina **esfortzuen biderketa saihestu** eta **kultura komuna sendotu** zuen.

Beste mekanismo batzuk dira **komunikazio- eta ikusgarritasun-kanal partekatuak, erosketak kolektiboak, prestakuntza agregatua**, eta ordezkaritza-espazioetatik datorren **informazio-fluxu partekatua**. Horrek denbora aurrezte eta erabaki hobeak hartzea ahalbidetzen du.

Interkooperazioa **geometria aldakorrean** gauzatzen da: ez da kooperatiba guztien parte-hartzea eskatzen beti, eta horrek **malgutasuna eta iraunkortasuna ematen dizkio taldeari**.

Horrez gain, **Elkartasun eta Inbertsio Funtzak** aukera ematen du proiektu estrategikoak eta behar kolektiboak bideratzeko. **Lokalen erosketak** izan da orain arteko materializazio indartsuena.

Azkenik, ECOSeko kide izateak **balio sinboliko eta erlazional handia** du: **ibilbidea, kaudimena eta konfiantza** partekatzen dituen sare baten parte izatea.

Zailtasunak daudenean, **elkarri eusteko gaitasuna** da taldearen indarguneetako bat.

Zein izan da politika publikoen rola Katalunian?

ECOSen garapena **ezin da ulertu azken hamarkadako politika publiko katalanik gabe**. **2008ko krisi ekonomikoa eta 2014-2015etik aurrera ESSaren aldeko indarren presentzia instituzionala** funtsezkoak izan dira.

Baliabide ekonomikoak, aitortza instituzionala eta **diskurtso politikoa agendan jartzea** erabakigarriak izan dira ESSaren hazkunde eta aniztasunerako. Fenomeno honek **nazioarteko**

ikerketa-interesa ere piztu du.

Gaur egun, harremana **itxaropenaren eta zuhurtziaren artean** bizi da. Ez da murrizketa bortitzen beldurra nagusi, baina bai **lehentasunen aldaketa**: berrikuntza gutxiago, baliabide berrien murrizketa eta **ESS instituzionalizatuagoaren aldeko joera**.

Testuinguru honetan, ESSak **bere sare propioetan gehiago oinarritu beharko du**. Eskuinaren edo eskuin muturraren gorakadak **arriku zuzenak** ekar litzake.

Ikuspegi estrategikotik, **polo kooperatiboek rol desberdinak izan ditzakete lurraldearen arabera**: landa-eremuetan **garapen lokaleko aliatu**, hiri-inguruneetan **erresistentzia-**, **ainguratze- eta babes-gune** gisa. Horregatik, **espazioen jabetza kolektiboa funtsezkotzat** jotzen da.

Zein da ECOSen ekarpena lurraldeari eta merkatu sozialari?

Katalunia mailan, **ECOSen eta haren kooperatiben eragina ukaezina da**, batez ere sektoreetako erreferente diren erakundeen bidez. Hala ere, eragin hori **batez ere bazkide diren kooperatiben jardunetik** dator.

Bartzelona mailan, ECOSek **interkooperazioaren eta artikulazioaren erreferente** gisa jokatu du. **Espazioen erosketa kolektiboak** beste proiektu askorentzat **eredu eta inspirazio** izan da.

Auzo mailan, eragina **orain arte mugatua** izan da, Eixample Dreta bezalako testuinguru batean. Hala ere, **iraunkortasunaren eta presentzia iraunkorraren apustuak** etapa berri bati ateak irekitzen dizkio.

Merkatu sozialari dagokionez, ECOSek eta bere bazkideek **hasieratik**

rol aktiboa izan dute: **ESS azokak**, eztabaida estrategikoak, **Balantze Soziala**, eta **finantza etikoen sustapena**.

Horrek guztiak **merkatu sozial katalanaren eraikuntzan ekarpen erabakigarria** egin du.

Zeintzuk dira ECOSen etorkizuneko erronka nagusiak?

Epe laburrean, **lokalen erosketa eta sendotzea arrakastaz ixtea** da erronka nagusietako bat, taldearen iraunkortasuna arriskuan jarri gabe.

Beste erronka estrategiko bat da **barne-aniztasuna handitzea**, gaur egun jatorri, profil sozioekonomiko eta formakuntza maila nahiko homogeenok baitira.

Belaunaldi-erleboia, aldiz, nahiko ondo bideratuta ikusten da.

Horrez gain, ECOSek **bere burua sendotzeaz harago joateko erronka** du: beste polo eta ekosistema kooperatiboak indartzen laguntzea, informazioa eta ikaskuntzak partekatuz.

Azkenik, **auzoarekiko lotura aktibatzea** eta hiri-testuinguru konplexu batean errotze soziala lortzea erronka nagusietako bat da.

Zein ikaskuntza eta gomendio ateratzen ditu ECOSek beste poloentzat?

Ikaskuntza nagusietako bat da **prozesu kolektiboek denbora behar dutela**. Konfiantza, egitura partekatuak eta proiektuak ezin dira azkartu.

Aniztasuna balioa da, baina **gutxieneko komun batzuk** behar dira balioetan, egiteko moduan eta kultura antolatzaileetan.

ECOSen bi “arima” bizi dira: bata **ekintzara, hazkundera eta iraunkortasun ekonomikora** bideratua; bestea, **zaintzan, erritmoetan eta harremanetan arreta jartzen duena**. **Bien arteko oreka konplexua baina aberasgarria** da.

Bestalde, funtsezkoa da **koordinazio- eta lotura-rolak** betetzen dituzten pertsonak izatea: informazioa antolatzea, aukerak identifikatzea eta interesak konektatzea.

Halaber, **akordioak idatziz jasotzearen garrantzia** azpimarratzen da. Parte-hartzea zaindu nahi bada, **aktak, akordio argiak eta erabakien trazabilitatea** ezinbestekoak dira.

Azkenik, atzera begiratuta, **espazio propioak erostea hasieratik estrategikoa izango zatekeen**, nahiz eta une hartan bidera ezina izan. Esperientziak berresten du **jabetza kolektiboa giltzarri dela** polo kooperatiboan **autonomiarako, egonkortasunerako eta etorkizunerako**.

Tangente

GRUPO COOPERATIVO:
POLO KOOPERATIBO BAT
MADRILEN

ELKARRIZKETATZAILEA: BDSKOOP ELKARTEA
ELKARRIZKETATUA: TANGENTE SAREA
ARGAZKIAK: TANGENTE SAREA



1. TANGENTEREN JATORRIA ETA EGITURA KOOPERATIBOA

Zergatik bigarren mailako eta irabazi asmorik gabeko kooperatiba bat? Tangente ekimen sozialeko bigarren mailako kooperatiba da. Zergatik hautatu zenuten formula juridiko eta antolaketa-eredu hori, eta ez beste sare edo elkarte mota bat? Zer ahalbidetu dizue eredu honek urte hauetan zehar?

Tangente lan-kooperatibismoaren baitan interkooperazioaren aldeko apustua da. Bigarren mailako kooperatiba aukeratu genuen, gure ustez, tresnarik egokiena zelako proiektu interkooperatibo baten baitan garatzeko eta zerbitzuak eskaintzeko.

Modu horretan, Tangente berez enpresa kooperatibo bat da, eta bazkide diren erakundeek osatzen dute; erakunde horiek, aldi berean, kooperatibak eta elkarreak dira. Gure estatutueta jasota dago, gainera, bazkide kolaboratzaileak eta bazkide langileak ere egon daitezkeela.

Eredu honek aukera eman digu eragin sozial eta ingurumeneko proiektu ugari garatzeko, eta, aldi berean, hainbat talde profesionalen arteko interkooperazioan zerbitzuak eskaintzeko. Denboran zehar garatu eta sakondu den enpresa-filosofia komun bat partekatzen dugu. Lege berrietara egokitzen joan gara, gure zerbitzuen diseinuan eta garapenean berritzen, eta, aldi berean, baliabideak, azpiegiturak eta ikaskuntzak partekatzen ditugu; baina, horrekin batera, Talde Kooperatiboa osatzen dugun enpresa bakoitzaren autonomia ere mantentzen dugu.

Interkooperaziotik polo egituratu batera. 2013az geroztik, lankidetzaz puntualetatik, gaur egungo benetako polo kooperatibo gisa funtzionatzera pasazarete. Nolako izan da prozesu hori? Noiz sentitu zenuten Tangente jada ekosistema propio gisa ari zela?

Abiapuntuan, aurretik zortzi urtez izanndako interkooperazio-esperientzia genuen, hasierako talde zaharrenean artean, eta pixkanaka beste batzuk ere gehitzen joan dira. Prozesu esperimentalak izan da: gobernantza-ereduan eboluzionatzen joan gara, egitura sostengatzen duen talde teknikoak handitu dugu, eta koordinazio-taldea ere egokitu dugu zerbitzuen bolumen eta tipologiara moldatzeko.

Ez dugu uste ekosistema gisa funtzionatzeko mugarri zehatz bat egon denik. Nolabait, beti izan da hala; denborarekin, ordea, gero eta gehiago barneratu da ikuspegi hori partekatzen dugunon zentzu komun kolektiboan eta jardunean. Prozesuetan murgiltzeko anbizioa izan dugu, eta Talde Kooperatiboaren aldeko apustua egin dugu etengabe.



2. TANGENTE KOMERTZIALIZATZAILE GISA

Tangente lana sortu eta banatzen duen eragile gisa aritzen da. Beste polo kooperatibo batzuekin alderatuta, Tangentek komertzializatzaile gisa ere jarduten du: proiektu eta kontratu aukerak bilatzen ditu eta bazkide diren erakundeei bideratzen dizkie. Nola funtzionatzen du zehazki eredu honek praktikan?

Prozesu horretan funtsezko figura bat dago: proiektuen teknikaria. Pertsona horrek aukerak bilatzen ditu, Taldeko kideei helarazten dizkie eta interesa dagoen aztertzen du. Prozesua proposamen jakin baten baitan bi erakunde edo gehiago interesatzen direnean aktibatzen da normalean. Une horretatik aurrera, bilera bat antolatzen da interesa agertu duten erakunde eta proiektu teknikariarekin, proposamena nola landu eta lana nola antolatu pentsatzeko. Azkenean kontratua lortzen bada, exekuzioa parte hartzen duten kooperatibetako profesionalekin osatutako lan-taldearen esku geratzen da.

Zerbitzuen eskaintza bateratua egiten duzue. Tangenteren webgunean bazkide diren erakunde guztien zerbitzuak modu bateratuan agertzen dira. Zein balio ematen dio horrek kanpora begira? Eta barrura begira, nola antolatzen da, erakundeen arteko lehia-dinamikak saihesteko?

Eskaintza bateratuak balio estrategiko handia du; izan ere, horrela zerbitzu integralagoak eskaini daitezke, bestela kooperatiba bakar batek ezin izango lituzkeenak eskaini. Adibidez, aholkularitza, komunikazioa eta online prestakuntza-plataforma baten muntaketa bateratzen dituen kontratu bati heldu dakiok.

Barneko lehia-dinamikei dagokienez, egia esan, normalean modu nahiko naturalean autoregulatzen da.

Hala ere, egia da talde dinamikoago edo handiago batzuek proposamen gehiagotan parte hartu ohi dutela. Prozesuak arautzen dituzten zenbait barne-prozedura ditugu, eta beharrezkoa balitz, koordinazio-taldeak eta proiektu teknikiariak esku har dezakete oreka berrezartzeko, nahiz eta hori gutxitan gertatzen den.

Halaber, taldeen eta haien beharren jarraipena egiten da hainbat modutan, eta informazio horrek parte-hartze proposamenak doitzeko lagundu dezake, batzuk edo besteak lehenesterako momentuan.

Zer irabazten du erakunde batek Tangenteko bazkide eginda? Zuen esperientziatik, zein dira Taldeko parte izatearen onura nagusiak? Lanbolumen handiagoa, egonkortasun handiagoa, ikusgarritasuna, proiektu konplexuagoetara iristea...?

Gure ustez, ekonomia sozial eta solidarioaren baitan ekintzaile eta enpresek ez dute bakarrik jarduten, eta ez dute soilik beren onura propioa bilatzen. Zentzu horretan, funtsezkoa da aliantza-sarea. Sarea ezinbestekoa da eragin politikorako, elkarri sostengua emateko eta hainbat arlotan sendotzeko.

Guzti horrekin batera, Tangenten partekatutako euskarri-zerbitzu batzuk ditugu, besteak beste administrazio publikoetako lizitazioetan eta dirulaguntzetan batera aurkezteko egitura eta bidelaguntza. Horrek fakturazio-aukera handitzen du, finantzaketa errazten du, eta iraupen luzeko, konplexuak eta diziplina anitzekoak izan daitezkeen proiektuak lortzeko aukera handiagoak eskaintzen dizkie bazkideei.

3. OBLIGAZIOAK, KONPROMISOAK ETA BARNE-GOBERNANTZA

Zer espero da bazkide diren erakundeengandik? Tangenteko parte izateak erantzukizunak ere badakartza. Zein konpromiso hartzen dituzte bazkide diren erakundeek? Badago Tangenteren bidez bideratu beharreko gutxieneko lan-portzentajerik edo proiektu komunari egin beharreko ekarpen ekonomiko edo denborazkorik?

Bazkide diren erakundeek kapital soziala ekartzeko konpromisoa hartzen dute, hiru hileko kuota bat ordaindu, eta bazkideen batzarretan parte hartzeko; bertara erakunde bakoitzetik ordezkari bat joaten da. Batzar horietan Taldearen plan estrategikoa, aurrekontua eta batera garatzen diren jardueren gainerako gaiak erabakitzen dira. Hileroko maiztasuna dute, eta, horrez gain, urtean bi osoko bilkura egiten dira, Taldeko pertsona guztiei irekiak; bertan intereseko gaiak lantzen dira edo beharrezko diren erabaki estrategiko garrantzitsuak berresten dira.

Bestalde, ez dago Tangenteren bidez bideratu beharreko gutxieneko edo derrigorrezko lan-portzentajerik, ezta nahitaezko denbora-dedikaziorik ere ez.

Parte-hartzea eta erabaki-hartzea nola egiten da? Zein inplikazio-maila espero da erakundeengandik poloaren bizitzan? Nola antolatzen dira gobernantza, erabaki estrategikoen hartzea eta sor daitezkeen tentsio edo gatazken kudeaketa?

Inplikazioari dagokionez, funtsezkoa da hileroko batzarrean parte hartzea; hori da hausnarketarako eta erabakiak hartzeko espazio nagusia. Bertan, oinarritzko kooperatiba bakoitzetik ordezkari bat aritzen

da. Horrez gain, urtean bi osoko bilkura estrategiko egiten dira; profesional-talde bakoitzetik nahi beste pertsona joan daitezke, eta Talde Kooperatiboaren norabide estrategikoa berrikusteko balio dute. Gure urratsak gidatzen dituen plan estrategiko bat dugu, modu kolektiboan eraiki eta balioztatua.

Koordinazio-taldearen lana ere garrantzitsua da ikuspegi estrategikotik. Hiru pertsonaz osatutako talde kolegiatua da, talde ezberdinetatik datozenak, eta hiru urtean behin txandakatu behar dutenak. Haien eginkizuna da, neurri handi batean, gobernantza-mekanismoak lurreratzea eta praktikara eramatea, baita sor daitezkeen gatazka batzuetan bitartekaritza egitea ere. Berme-batzorde bat ere eratuta dugu, nahiz eta, egia esan, oraingoz ez den inoiz aktibatu behar izan.

4. MADRIL, POLITIKA PUBLIKOAK ETA TESTUINGURU POLITIKOA

Madrilen egotea: aukerak eta zailtasunak ditu. Tangentek Madrilen du egoitza, eta gaur egun eskuinak gobernatzen du bai Erkidegoan bai Udalean. Nola baldintzatzen du testuinguru politiko honek zuen lana ekonomia sozialean eta trantsizio ekosozialean?

Madril ez da testuinguru erraza Ekonomia Sozialarentzat; horregatik, are garrantzitsuagoa da elkartuta egotea eta sareak ehuntzea. Ez diogu uko egiten tokiko eta eskualdeko administrazio publikoekin harremantzeari, gure bizilekua eta gure jardun profesionala garatzen dugun lurraldea baita. Batzuetan frustragarria da, ikusten dugulako ekimen askok eragin eta garapen handiagoa izango luketela administrazioen bultzada eta babes handiagoa izango balute.

Administrazio publikoekin lan handia egiten duzue politika publiko diseinu, laguntza eta ezarpenean. Zein zailtasun aurkitzen dituzue testuinguru politiko honetan? Non identifikatzen dituzue jarduteko tartearik edo aukerak?

Testuinguru politikoa giltzarria da edozein eraldaketa-ekimententzat. Gaur egungo polarizazio global eta estatala ez da mesedegarria prozesu komunitarioentzat, nahiz eta, horrenbestez, are beharrezkoago bihurtzen diren. Administrazioekin lan egitea funtsezkoa da, eta gure rol profesionaletik, Ekonomia Sozialaren baitan, aldaketarako palankak sortzen saiatzen gara, emaitza desberdinekin.

Nola txertatzen dira genero-ikuspegia, jasangarritasuna edo justizia soziala bezalako ikuspegiak politika publikoetan, testuinguru ideologikoa aldekoa ez denean? Zein estrategia erabiltzen dituzue atzera ez egiteko?

Ikuspegi horiek modu zeharkakoan txertatzen ditugu gure zerbitzu guztietan, eta aurkezten ditugun proposamenetan presente daude. Saiatzen gara helburu horiekin lerrokatuta dauden kontratu eta bezeroekin lan egiten, baina, jakina, badira muga batzuk. Gainera, barne-prestakuntzak egiten dira langileentzat eta bazkide diren kooperatibetako langileentzat. 2025ean ikuspegi intersekzionalari buruzko prestakuntza oso bat amaitu genuen, hiru saioko “Desgenerando” izenekoa; Talde Kooperatibo osoan dauden 140 pertsonetatik 70ek parte hartu zuten.

5. ERAGINA, DATUAK ETA ETORKIZUNERA BEGIRA

Datu ekonomikoak eta ereduaren bideragarritasuna. 2023an Tangentek 1,36 milioi euro fakturatu zituen, eta Taldea osatzen duten erakundeek ia 5 milioi eurotara iritsi ziren. Zer adierazten dute datu horiek polo kooperatiboaren bideragarritasunaz eta sendotasunaz ekonomia sozialaren baitan?

Gure ustez, datuek baieztatzen dute polo kooperatiboek bideragarritasuna eta sendotasuna ematen dutela. Egia da oraindik konpondu beharreko gai batzuk badaudela, hala nola bigarren mailako kooperatibetan egitura bikoiztasunak dakarren zama edo zenbait gairi erantzuteko arintasuna.

Etorkizuneko erronkak. Datozen urteetara begira, zein dira Tangenteren erronka nagusiak? Sendotzea, haztea, eredia beste lurralde batzuetara hedatzea, ala barne-oreka zaintzea?

Sendotzea eta barne-oreka zaintzea dira guztia oinarria. Halaber, gustatuko litzaiguke polo gisa modu jarraitu eta jasangarrian haztea, eta aldi berean beste eragile batzuekin bat egitea Madrilgo Ekonomia Sozialaren ekosistema sendotzeko, gure hirian kooperatibismoari aukera eta etorkizun handiagoa eskainiko dizkieten espazio fisikoak sortuz.



Ekonomia sozialean ekintzaile izan nahi duzu?



AZKARRA



PERTSONALIZATUA



MALGUA



ERAGINKORRA
ETA PRAKTIKOA

ERALDAKETA FABRIKA

EKINTZAIETZA PROGRAMA

Aurkeztu
iezaguzu zure
proiektua!





Aixin Zolua 5, B lokala.
20304 IRUN
www.bdskoop.eu

BDS | KOOP
ERALDAKETA FABRIKA